



Euskal subiranotasunaren aukerak

Juan Jose Alvarez eta Francisco Letamendia



Iritzia

Rafa Larreina
Markel Olano
Maribi Ugarteburu
Patxi Zabaleta

Familia abertzaleen kidetasunak bizkortuko ditu subiranotasunaren aukerak

Sinistu, adostu eta ausartu behar du abertzaletasunak” idatzi genuen LARRUNen, 2009ko maiatzean. “Abertzaletasunak krisi egoera bizi du, aurrera egiteko bide berririk aurkitzen ez duelako, edota, esaterako, krisia bizi du Espainiak neurria hartu diolako”. Bi urteren ostean, bake eta normalizazio politikoa helburu duen prozesu berria bizi dugu. Abertzaletasuna aro berri batera iristeko bideak esploratzen ari da. Bi kultura abertzaleak hizpide izan ditugu gure solaskideekin. Hona lehen premisa: “Ezker abertzalearen goranzko joerak, orain arteko EAJren hegemonia kolokan jarri du EAEn”. Francisco Letamendia (Donostia, 1944) eta Juan Jose Alvarez (Zumaia, 1964) solaskideek –hurrenez hurren, zientzia politikoetan eta nazioarteko zuzenbidean EHUKo irakasleak– bi familia abertzaleen oinarritzko akordioaren beharra azpimarratu dute. Bi familien beharrak adostasuna posible eginen duen itzaropenez mintzatu zaizkigu. Zein dira ordea, euskal subiranotasunaren aukerak?

■ **Egilea: Mikel Asurmendi**
Argazkiak: Dani Blanco


Zein da abertzaletasunaren egoera gaur egun?

FRANCISCO LETAMENDIA: Abertzaletasuna osasun onean dago. Uneon, euskal nazionalismoa hegemonikoa da EAEn. Hauteskundeetako emaitzak subiranozaleen %60 eta konstituzionalisten %40 artean banatuta daude, hautesleak abertzale-tasunaren aldera lerratuak dira. Halere, hiru lurralde-
deen arteko desoreka dago. Abertzaletasuna hege-
monikoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, Araban,
berriz, indarrak berdinduta daude. Nafarroan,

abertzaletasuna gutxiengoa da, baina goranzko joera hartzen ari da. Oro har, joera aurrerakoiak eta sozialak abertzaletasunaren esparruan daude. Iparraldean berriz, elektoralki gutxiengoa izan arren –boz emaleen bostetik bat abertzalea da–, aukera abertzalea oso adimentsua da. Abertzaletasunak ekimen ugari landu eta zabaldu ditu, eta sektore anitz bat datoz bere helburuekin. Batera plataformaren helburuekin, alegia. Bateraren aldarrikapenak abertzaletasunaz kanpoko sektore askok ere onartzen ditu.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.296. zenbakiarekin banatua, 2011ko urriaren 30ean)



Francisco Letamendia eta Juan Jose Alvarez. Biak ala biak, EHUko irakasleak. Bateragune auziaren epaia ezagutu berri, eta, artean, Bake Konferentziaren oihartzunak entzuten zirela itxi genuen LARRUN.

Hala ere, abertzaletasunak arazo asko dauka: bat, funtsezkoa, abertzaletasunaren bi kultura politiko nagusien elkarbizitza konpontzea. Familia jeltzaleak eta ezker abertzaleak elkar onartu behar dute. Hori ez da egina oraindik. Iparraldeko abertzaletasunak sedukzio politiko moduko bat landu du, Hegoaldeko abertzaleek modu hori bere egin beharko lukete. Horrek lagunduko liguke subiranotasunaren aukerak indartzen.

JUAN JOSE ALVAREZ: Iparraldean hori horrela da, abertzaletasunaren –zentzu orokorrean– kontzepzioaren bi arimak askoz hurbilago daudelako hemen baino, eta abertzaleek egiteko asko daukatelako. Azken 30 urteotan, familia subiranozaleen arteko harremanek okerrera egin dute Hegoaldean. Arrazoietakoa bat haxe izan da:

ezker abertzaleak politika instituzionalean 30 urtez jardun duten alderdi abertzaleen senitarteko izateari utzi dio, jeltzaleen arerio politikoa bihurtu da. Orain, honen aukera elektorala, “bat-batean” nolabait esanda, jeltzaleen maila berera iristen ari da. *Grosso modo*: bi indarren arteko hegemoniaren lehia hasi da. Osagai elektoralistak gaina hartu dio politikoari, subiranotasunaren kontzepzioan erradikalizazioa eman da. Adibidez, PSE-EE lehendakaritzara iristeak ez du inolako katarsi sozialik eragin, euskal gizartea heldua delako, baina independentzia defendatzen duen sektorea sumindu du.

Bi familia abertzaleen lehia areagotu da azken hauteskundeetan, elkar trabatzen dute. Nire gusurako, osagai amankomun askoz gehiago izan



Francisco Letamendia

ETAren amaiera ekarriko duen prozesu gorabeheratsu baten hasieran gaude. Ez gaude ETAren amaieran, baina prozesuak ETAren amaierara eramango gaitu”

beharko lukete bi espresioek. Uneon, eskuinaren eta ezkerren diferentzia ideologiko handiak lausotuta daude ekonomiaren indarrarengatik eta globalizazioaren joerarengatik. Euskadin, aldiz, eskuineko abertzaletasuna (EAJ) eta ezkerreko abertzaletasuna (Ezker abertzalea) oldartuta daude osagai totemikoen eraginez. Hemendik lau urtera, demagun, interesgarria izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak –Martin Garitano buru duela– egin duen politika aztertzea. Errealismo politikoak ezker abertzalea behartuko du *rupturista* ez izatera, bere bagage ideologikoa arintzera. Gure herriaren ezaugarrietako bat anai-arreben arteko borroka da, nazio espainiarrena ez bezala. Eta ez bakarrik nazio espainiarrek Estatua duelako, eskuineko eta ezkerreko identifikazio ezaugarri oso sendoak dituelako baizik. Gurean, horiek bazterrean utzi ditugu.

F. LETAMENDIA: Ados. Ñabarduretan sartuta, espainiarrek nazionalismoa egina dute eta euskaldunok egiteko daukagu. Baina, mendebaldeko estatuetan, eta are nabariago Espainiako Estatuan, nazio-estatuaren eta politikaren iluntzea eman da. Krisi ekonomikoak estatuen subiranotasunean eragin du. Estatuetan ez dago ezkerreko eta eskuineko diferentziarik, estatuak uko egin diote erabaki subiranoak hartzeari eta merkaturaren subiranotasuna gailendu zaie.

Espainiako Estatuan subiranotasunaren eta politika nazionalaren hustasunaren ondorioz,

(Espainian ez Euskal Herrian) geratu den oposizio bakarra maiatzaren 15eko (M15) suminduen mugimendua da. Identitate sendoa duena eta estatuen subiranotasunaren gabeziari erantzuten diona. Hemen ez da suminduen kasua horrenbeste zabaldu. Nik, ordea, gurean estatuen politikak zapaltzaileak –merkatu ekonomikoen eskutik– ezkerreko abertzaletasunak hartu duen goranzko joerarekin zerikusia duela uste dut.

Hegemonia lehian dago. Abertzaletasunaren aro berri batean al gaude? ETAren aroa amaitua al da? Nola ikusten duzue aldaketarako prozesua?

F. LETAMENDIA: ETAren amaiera ekarriko duen prozesu gorabeheratsu baten hasieran gaude. Ez gaude ETAren amaieran, baina prozesuak ETAren amaierara eramango gaitu. Azken 30 urtetan, mugimendu sozialen bitartez, demokrazia parte-hartzailea, genero berdinketa eta bakezaletasunaren ideiek espazio gero eta zabalagoa hartu dute ezker abertzalean –Elkarri-ren esperientziak asko lagundu du horretan–, honen baitan txertatutako baloreak ez datoz bat biolentziaren erabilerarekin. ETAk gogaitasuna eta aukera arrazionalaren eza ezarri ditu gizartean. ETAk biolentzia uzten duen aldiro, elektoralki gora egingen duenaz jabetu da ezker abertzalea. EAEn abertzaletasuna gehiengoa izanik, zerk eragozten du talde armatuaren amaiera? Trantsizioan gertatuak azaldu diezaguke hori: espainiar eskuinak (AP) Fraga Iribarne frankista kendu behar izan zuen goi karguetatik boterea hartzeko. Ulertzeko diot. Orain ETAren iraupenak ezker abertzalearen garapena mugatzen du, baina ETA gabe ez zen ezker abertzalerik izango. Euskal nazionalismoan bi kultura sustraitu dira: batek mendea bete du, baina besteak ere mende erdia du. Bigarrena garapen bidean dago, gorabeherak ezagutuko ditu, baina etorkizuneko aukera sendoa da.

J. J. ALVAREZ: Nire ustez, prozesua despolitizatu behar da, prozesuak aurrera egingo badu. Kutxa Banken akordioan, esaterako, “despolitizazio” moduko bat eman da. Familia politiko batzuek

zein besteek totem zenbait hustu dute euren motxiletatik. ETaren gaira etorritz, ETA erakundeaz geratzen dena geratua ere, bere militanteak oso kontziente dira beren ahultasunaz. Amaiera eszenifikatzeko arazoa dago, ordea. Esaterako, Odon Elorzak, Donostiako alkatea zela, zinta baten mozketaz irudikatzen zuen ETaren amaiera. Adiskidetzaren ekitaldi handi batekin. Nik ez dut halakorik ikusten. Ez gara bihar esnatuko eta hara: ETA bukatu da. Halere, ETaren amaieraren hasieran gaudela pentsatzeko zantzu asko dago, bereziki, ETA eragile politiko gisa. Hori izan baita bere nahikari nagusia. ETak gure herriaren historiaren prozesu naturalean eragin nahi izan du, jarraitasuna eteten ahalegindu da borroka armatuaren eta terrorismoaren bitartez. ETA jabetu da ez duela honezkero eragiten politikan, ez dela eragile politiko. Horren froga da Bilduko buruzagien jarrera. Ezker abertzaleak lortu dituen botoak –eta lortuko dituenak– prozesuari esker dira. Areago, botoak likidazionisten aurkakoak dira. Paradoxikoki, orain arte borroka armatua uztearen aldekoa likidazionista zen. Orain terminologia hori aldatzen hasi da, likidazionistak dira prozesua likidatu nahi dutenak. Hegemonia politiko bilatzen dutenen eta konfrontazio armatua sustatu dutenen arteko talka dago.

Nola kudeatu behar da prozesuaren amaiera egoia izan dadin?

J. J. ALVAREZ: Prozesua azkar joatea nahi izaten da, baina honek digestio bat eskatzen du, prozesu sozial guztietan behar den destilazioa. Orrialdea pasatzeko irrika azkartu izaten da. Prozesuak egonkortasun sendoa hartu behar du lehenik. Bestalde, Espainiako Gobernuaren jarrera alda-keta behar da. *Pluja Seca* dokumentalak erakusten duen bezala, gobernu britainiarrak hasieran uko egin zion prozesuaren elementuak eszenaratzeari. Alegia, IRAk armak utziko zituen berme guztiak baieztatu arte. Espainiako Estatuak Brian Currin eta nazioarteko bitartekariei ez die arnasa-rik eman nahi, gatazka konpontzeko nazioarte-ko metodologia bati baietza eman nahi ez diola-



Juan Jose Alvarez

ETA erakundeaz geratzen dena geratuta ere, bere militanteak oso kontziente dira beren ahultasunaz. Amaiera eszenifikatzeko arazoa dago, ordea”

ko. Espainiako agintariak ez diote prozesuari ainerik eman nahi, auziari dimentsio politikoa ematen zaiolakoan. Haatik, auzia bizi-bizirik dago –nahiz eta prozesua hozkailuan sartu nahi duten– eta bizirik egongo da. Edonola ere, Estatuaren egituretatik ez dute bidea markatuko. Prozesu hau Loiolako prozesuaren antitesia da. Orduan, Estatuak prozesuaren eszenifikazioa bilatu zuen, orain, aitzitik, ez. Eta ez da ahalmen kontua. Pauso hori ez ematea estatuaren logika perbertsoan sartzen da, ETaren amaierak politikan izan dezakeen eraginari erantzuten dio mugimendu abertzalean ematen ari den gorakada neutralizatzeko.

F. LETAMENDIA: Eta ez bakarrik hemen, Katalunian ere bai. Hau da, nazio-estatuak mapatik desagertzen ari diren unean, gobernuak ez daukate erabakitze gaitasunik. Horren aurrean, politika modu berriak sorrarazteko ekimenak oso beharrezkoak dira: foro propioak, autonomoak, subiranotasunaren bidea argituko dutenak; M15eko suminduen mugimendua barne. Mugimendu horiek kezkatzen dituzte indar espainolistak. Nik mugimendu horiek egungo prozesuaren moduarekin lotzen ditut. Euskal Herriko prozesua aldebakarrekoa da, horrek badauka abantaila itzela. Prozesua abiatu dutenek ez baitiote baldintzarik jarri estatuari, beraz baldintzak ez dira euren kontra itzultzen. Estatuak ez dio batere kasurik egin, baina aurrera jarraitzen du. Honek eskuak libre uzten dizkio ezker abertzaleari prozesua lideratzeko. Aurrekoetan ez bezala, orduan baldintzak baitzeuden.

Noski, aldebakarrekoa izateak lan arduratsua eskatzen du: abertzaletasunaren barne arazoen konponketa. Artean, aldebakarreko prozesua izateak abertzaleei eskuak libre uzten dizkie erabakiak hartzerakoan, baina Estatuari ere aukera uzten dio gogoak ematen diona egiteko.

J. J. ALVAREZ: Baiki. Azken bi urteetan espetxe politikaren gogortasun isilak ez du laguntzen, adibidez.

F. LETAMENDIA: Horixe. ETArek biolentzia desagertu denean espetxe politika areago gogortu du Estatuak. Talde armatu batek esan dezake: “Abandonatzen dugu, desagertuko gara...”. Baina, 700 pertsona preso horiek bizkarreratuko dute bizi osorako *marroia*? Ez naiz parametro politikoetan ari, talde armatuen termino eta logikan baizik. Tamalez, Estatuak ez badio eskaintzen modu sinesgarrian gai honi irtenbidea azkar, zalantzan jartzen dut ETA desagertuko denik.

Nola baloratzen duzue hortaz, Bateragune auziaren sententzia? Nola eragiten du prozesuan?

J. J. ALVAREZ: Sententzia tekniko bat dago, her-tsi-hertsia, eta juridikoa bestalde. Bigarrenak lehenak baino balio gehiago behar luke. Alde teknikoak, ordea, sententzia bideratu du politiko-ki. Hots, lehenik epaia eman dute eta gero eraiki dute argudioa. Normalean, alderantziz izan behar luke, baina Auzitegi Nazionalak instrukzioa egiten du, baita epaia eman ere. Instrukzio epaile bat beharko litzateke lehenik, frogak prestatzen dituen, eta gero Auzitegiak –frogak landu eta erabili gabe– sententzia eman behar luke. Espainiako Auzitegi Nazionala salbuespena da ordea, bere oinarritzko eraketa perbertsoa da.

Arnaldo Otegi kondenatua izatea ETako buruzagia izateagatik oximorona da, epaiketean planteatu zenaren kontraesan erabatekoa. Sententziak hauxe esaten du: ETArek eboluzio politikoa azaltzeaz batera, auzipetuek ez dute ETA-

ren amaiera ekarri nahi. Okerrago oraindik, ETArek birrerakundetzea bilatzen duen talde bat dela dio. Otegi eta bere kideak ETA denbora berriei egokitzeko aldaketa kamaleoikoaren eragileak direla, hauetako hiru ETako buruzagitzat joz. ETArek deklarazioetan eta Otegiren taldearen diskurtsoetan omen dagoen antzekotasuna funtsatu da hori esateko. Epaia frogatu nahi du ETAn konfluitzen duen elipsia dagoela. Alabaina, froga elementurik ez da ageri. Eskandalua izugarria da. Sententzia politikoa da, ahula, eta egungo prozesuaren errail horretan galga jartzen du. Alde batekoak kontentatzeko eta beste aldekoak probokatzeko balio du. Zentzu horretan, epe motzean, prozesuaren aldebakartasunak erronka bat dauka: gizarteak ez erantzutea Estatuaren probokazioari. Gizarteak ikaspen hau barneratu behar du: ezker abertzalearen talde bat planteatzen ari da ETArek amaierarako estrategia benetako bat, ezker abertzale osoak segitu behar duen norabidea lantzen ari dena.

F. LETAMENDIA: Ados Juanjorekin. Nik ETArek auzia beste ikuspuntu batetik azaldu nahi dut. Biolentziaren erabilpen mediatikoak arrasto sakona utzi du gizartearen, modu mekanikoan funtzionatzen duen aurreiritzi asko sorrarazi du. Ezker abertzaleak epe luzera sozialismoa eta independentzia aldarrikatzen ditu, eta epe ertainean, erabakitzeko eskubidea edo autodeterminazioa. ETAk ere bai. Orduan, sistemak “dena ETA da” delako baiezipenaren bitartez, diskurtsoak parekatuz, biolentziaren ekstrakzioa egiten du. Konstituzioak edozein planteamendu politiko legitimoa dela dio, biolentzia tarteko ez bada. Orduan? Halere, sistemaren indar mediatikoek ETArek helburuak eta epaituak izan diren pertsona hauen helburuak parekatzen eta demonizatzen dituzte. Hori maniobra politikoa da, silogismoa da. Niri sententziak aldebakarreko prozesuaren bide zaila azalarazi dit. Noski, espero dut gizarteak erantzun egokiak ematea, azken manifestazioetan eman diren modukoak. Izan ere, sententzia honek herri honen aurkako zapalketa nazionala areagotu du, biolentziaren berra-



“Biolentziaren erabilpen mediatikoak arrasto sakona utzi du gizartean, modu mekanikoan funtzionatzen duen aurreiritzi asko sorrarazi du” dio Letamendiak.

“Prozesua azkar joatea nahi izaten da, baina honek digestio bat eskatzen du, prozesu sozial guztietan behar den destilazioa” dio Alvarezk.

gerpena bilatzen du prozesua pikutara joan dadin: kale borroka medio edo ETaren muturreko sektore baten atentatuez. Tira, nik ia-ia ezinezkoa ikusten dut hori, baina sententzia saiatzen da hori gerta dadin. Osterantzean, baikor begiraturik, sententzia ere itxaronaldiaren logikan ulertu behar dugu: ETak ez du borroka armatua utzi, denok espero dugu PP izatea hurrengo gobernuan, orduan ez dezagun prozesua gehiegi azeleratu. Otegik eta bere lagunek espetxean segi dezatela. Hurrengo urratsak bes-telakoak izango dira agian. Esaterako, Auzitegi Konstituzionalak Gorenaren kontrako epaia ematea.

Bidean bide, nola baloratzen duzue Gernikako Akordioaren bilakaera? Nola ikusten duzue Sorturen legalizazioa?

F. LETAMENDIA: Gernikako Akordioan Otegi-ren taldearen eraginkortasuna azpimarratuko

nuke nik, prozesu honen bultzatzaile garrantzitsua da. Nik indar biltze prozesu batean kokatzen dut, interesgarria oso. Euskal nazionalismoaren bi kulturak alderatzen baditugu, EAJ txikitze garaian dago eta ezker abertzalea handitze garaian. Gernikako Akordioak bi helburu ditu: prozesu politikoa bultzatu duen adar politikoak adar armatua gainditzea eta bukatzea. Otegi-ren taldeak indarrak bilatu eta aurkitu ditu haren arrazoiak sendotu eta bermatzeko. Akordioak ez zuen espero, prozesuaren zailtasunak medio –Bilduren esperientziak eta arrakastak aldatu duena–, ezker abertzale osoaren indar biltzea datozen hauteskundeei begira, prozesua zabaltzea eta indarrak biltzea aldi berean ekarriko zituela. Ondorioz, ezker abertzalea ez da oraindik ere geratzen denaz oso kontziente. Izan ere, biltze horretan batu diren indar guztiak ez dira ezker abertzalearen jatorrikoak, aita-ama ezberdinen familien ondorengoak dira. Azken hamar urteotako esperientzia eta bilakabidearen

ondorioz ezker abertzalea beste bat da. Dena den, niretzat hori da bidea.

J.J. ALVAREZ: ...Pacok dioen bezala, Bilduren sorrerak areagotu du indar biltze hori. Bildu elementu inorganikoa da, egiturarik gabekoa, oraingo ezker abertzalearen kultura ezberdina da.

P. LETAMENDIA: Hori da. Nik bat egiten dut bateratze horretan, noski. Baina, bistan da, ezker abertzale berri honen biltze bidean txinpartak aterako dira. 50 urteko kultura daukan orain arteko ezker abertzalearekin bat egitea, sozialdemokraziara bidean sartzea, ez da erraza izango, bateratasuna ez da berehala egingo. Ezker abertzalea ez da planteamendu horren alde, oinarriak apurtzaileak eta sistemaren aurkakoak dira jatorriz.

J. J. ALVAREZ: Halere, Sorturen auzira etorritz ezin da Sorturen legalizazioa ulertu –Auzitegi Konstituzionalak aztertu behar duena– Gernikako Akordioaren premisak kontuan hartu gabe. Bilduri anbiguitasuna leporatu dio justiziak, gauzei bere izenez ez deitzea. Gernikako Akordioak hiru elementu biltzen ditu, ordea: juridikoa, politikoa eta etikoa. Juridikoa: Bilduk legalitate formal lortu zuen, azken minutuan egia esan, eta, logikoki, Sortu ere legalizatuko dute. Bestelakokan, beste eskandalu politiko bat izango litzateke. Auzitegi Konstituzionalak bere doktrina aldatu beharko luke –hauteskundearen eta koiuntura politikoaren nahierara– eta hori estatu sozial eta demokratikoaren zuzenbide izaera ukatzea litzateke. Sorturen estatutuen erredakzioa tentu handiz eta fineziaz egin dago, Bilduren estatutuen ildoan, Alderdien Legearen exigentziei jarraikiz, bere oinarria Gernikako Akordioan duena.

Dena den, hori esparru juridikoari dagokio. Niretzat horrek exigentzia maila apalagoa izan dezake. Maila etiko politikoan, edo deontologikoan, bai dela ulergarria ezker abertzaleari exigitzea bake bideak sendo urratzea. Eta hori, egiari zor, Akordioan dago eta bere potentzialtasuna eta balorea gutxietsi dira. Izan ere, orain arte ins-

tituzioetan jardun duen abertzaletasunari eremua jaten diolako. Akordioak bidea zabaltzen du proiektu hori atxikitzeke prest dauden sektoreei leku eginez. Estatuari demokrazian bizitzeko dekalogo zuzena formulatu dio. Beste edozein aukera politikorekin homologagarria. Gernikako Akordioaren ahalmena handia da. Nik Ajuria Eneko Itunaren hainbat puntu parekideak ikusten ditut. Erabakitzeke eskubideari eta presoen gizarteratzeari aipu egiten dietenak. Aspektu hori alderdi askok isildu dute, ordea, konstituzionalistek bereziki. Akordioak borroka armatuari buruzko jarreraren aldaketa modu instrumentalez egiten dela esateak sua pizteko gaia ematen die Akordioan sinesten ez dutenei. Gernikako Akordioan elkarbizitzaren oinarri demokratikoa izan behar duena argi eta garbi agertzen da, baita biolentzia ororen errefusapena ere. Akordioak potentzialtasun totemikoa dauka eta isildu egin nahi da.

F. LETAMENDIA: Otegi eta bere taldekideak martiren gisakoak bihurtzeak prozesua bizirik mantentzen du, atxikimendu afektiboa jasotzen baitu. Alabaina, egoera oldarkor honek prozesua ahuldu egiten du antolamenduari dagokionez. Bateragune auziko ezker abertzaleko kideak zaurgarriagoak ziren Sortu auzian ari diren beste kideak baino, Auzitegi Nazionalaren aurrean pasa behar zutelako. Nik ere Sortu legalizatuko dutela uste dut. Baina, Bateragune auziaren epaia ezagutu eta berehala, Cándido Conde-Pumpido Sorturen kontra azaldu da. Halere, Auzitegi Konstituzionaleko magistratu batek, ildo kontserbadorekoak gainera, Sortu legala izango dela adierazi du.

J. J. ALVAREZ: Estatuaren fiskalaren zeregina legalitatearen defentsa da, eta Conde-Pumpidok osagai etikoa, politikoa eta juridikoa nahasi ditu. Beraren hitzetan “ETA dagoen bitartean... Hauek engainatu nahi gaituzten bitartean...” argudioak balio du tabernako tertulia batean, baina ez Estatuaren fiskal bezala hitz egiteko. Bere jarrera medio bere funtzio instituzionala

bortxatu du. Bigarren datu bat: Sortu alderdiaren estatutuen erregistroaren legalitatea kuestionatuko da, baina ez alderdi legearen aplikagarritasuna. Sortuk hauteskunderen parte hartzeko. Estatuak hauteskunde mugimendu hau oztopatzeko asmoa badauka, maniobra margen txikiagoa dauka. Alderdia aztertzen da bere erregistroa egiterakoan, baina ez bere zeregin politiko praktikoa. Dena den, Estatuaren legalitate hertsia aztertuta, Sorturen estatutuen legalitatea ukatzea barbaridadea litzateke. Estrasburgoko Auzitegiak berak ez luke onartuko. Areago, baieztatu nahi badute Sorturen fundatzaileen atzetik Batasunaren sortzaileak daudela, baiezipen perbertsoa da. Alderdien Legeak baimentzen du legalitatea, baldin eta alderdi berri baten bitartez Estatuak exijitzen dituen printzipioekin bat egiten badu. Zuzenbide Estatuak ozenki exijitzen dituen printzipioak dira.

Prospekzio politiko eta juridiko zehatza eginenez gero, ezin da imajinatu Sortu gabeko eszenategia, hau da, Sortu legalizatua izango da. Artean,

noski, hainbat kabala egin daiteke: PPK ez du Auzitegi Konstituzionala erreformatu nahi izan —hauteskunderen gehiengo osoa irabaziko duelakoan— Auzitegiaren dagokeen joera progresista aldarazteko. Hori egia balitz, Auzitegi Konstituzionalak bere doktrina aldatuko balu —bere sinergiarritasun politiko, sozial eta juridikoa goitik behera nahikoa eroria jada—, bere buruaz beste egiten bukatu dezake. Bilduren sententzia diktatu zuen doktrina —ez gehiengo batez, betiere— aldatu beharko luke. Gainera, Bilduren kasuan elementu aktiboak juzkatu ziren, eta Sorturen kasuan, araudiaren testu legala bakarrik neurtu daiteke. Sortu legalizatuko dutela diogunean, erregistroan onartuko dutela esan nahi da. Hortik aurrera, hauteskunderen parte hartzea beste kontu bat izango da. Alderdiaren Legearen galbahetik pasa beharko du berriz ere. Gerta liteke ezker abertzalearen aukerak —demagun Bilduren aurkako ilegalizazio prozesu bat ematen dela— deuseztuak geratzea Sorturen esparrua neutralizatzeko. Dena den, ezin da geroa eta sistema demokratikoa ulertu Sortu legez kanpo egonez gero.



Gernikako Akordioaren oinarrian eta abiapuntuan Arnaldo Otegiaren lana eta honen taldekideena azpimarratu dituzte bi solaskideek. Izen-abizenekin azpimarratu, hain zuzen ere.



“Estatuaren fiskalaren zeregina legalitatearen defentsa da, eta Conde-Pumpidok osagai etikoa, politikoa eta juridikoa nahasi ditu”. J. J. Alvarez.

F. LETAMENDIA: Egoera eskusiboa litzateke. Alderdi politiko bat legalizatua egotea eta bere buruzagiak espetxeratuak. Horrek hurrengo hauteskundeetarako eratuko den aukera –nagusiki, Sorturen behin-behineko aukera– izugarri indartuko du. Prozesuaren izaera ikusita, koalizioa, [Amaiur koalizioa] alderdi bakarra izan ordez.

Zer iritzi duzue Bilduren ibilbideaz?

J. J. ALVAREZ: Politika errealak agintari edo gidari politikoa –bere joera ideologikoaz gainetik–, lurra ukitzera behartzen du. Bilduk denbora gutxi darama politikan bere ibilbidearen balantzea egiteko, baina begi-bistakoa da, errealismo politikoari lotzeko beharra inposatzen ari zaio. Kutxa Bank horren adibidea da. Erantzukizunaren eredia da, politikan maximalismoak ondo daude etxeko sukaldean, baina gobernatu behar duzunean, ezin duzu “dena edo ezer ez” delako maxima hartu. Herriarentzat askoz positiboagoa da, uneon, sistemaren barrutik eraikitzen aritzea, eraikinaren parean pankarta baten atzetik jartzea baino. Energia negatiboak badu glamourra, adredalina berpizten du, baina ez du eraikitzen.

Hau da, ideologia batekiko koherente izan daitezkeela erakusteak, hainbat gauza ezin dutela gauzatu testuinguru politikoan buru-belarri sar-

tuta daudelako asumitzeak eta gobernu termino batzuetan jokatzekak Bildu bera onduko du. Bilduko gidariek, eta ezker abertzalearen buruzagiek, sistemaren aurkako izaera dutenek, gazteriaren izaera politikoaren sinpatia ernarazten dute. Alabaina, gobernatu ahala dibismo moduko hori kenduko zaie. Ezker abertzaleari lebitatzearen sentimendua eroriko zaio, onerako eta txarrerako, lurra ukitzea ona da. Kritikak izaera sana da, ona da zure diskurtsoa “zibilizatzen” joateko. Horrek prozesu eta apustu politiko bera irabaztera eramanezake. Hegemoniaren lehiak altxarazten dituen bekaizkeria politikoak ikusaraztea beharrezkoa da. Eredu ezberdinak izateak ez du ezkutatu behar elementu amankomunak nahiz diferentziak daudela familia abertzalean.

F. LETAMENDIA: Bilduk Kutxa Banken aferan izan duen jarrera arrerapauso handia da, aurreiritziak gutxitzeko oso baliagarria. Bizitzen ari garen aldaketak ezker abertzale berriaren osakeran sartu behar dira. Ezker abertzaleak udalerrietako gobernuan jardun du, baina, lehen aldiz, EAEko lurralde bateko gobernu hartzean, benetako boterea ukitu du. Politikagintzako eta botereko “esku zikinak” direlakoan esamesak agertzen hasten dira. Ezker abertzaleak ardura nagusiak hartu behar ditu mugimendu sozial, kultural eta sindikalekin politika lantzerakoan. Esaterako, ELA ez du begi onez ikusi Kutxa Bankeko akordioa. Niri ELAko argudioak errespetagarriak iruditzen zaizkit, baita Gipuzkoako Diputazioarenak ere. Oro har, Bilduk erantzunak eman behar ditu. Horrek baina, egoera oraindik heldugabe harrapatzen du ezker abertzalea, orain arte izan ez dituen arazoak landu behar baititu.

J. J. ALVAREZ: Beste adibide bat EUEDElena da. Gipuzkoan Bilduk “nik ez dut bat egiten eredu honekin, eredu alternatiboa eratu nahi dut” esan dezake. Arazoa hau da ordea: herri honetan sortutako eremu instituzionaleko lege sektorialek determinatzen dituztela udalek jasotzen dituzten diru laguntzak, EUEDElek egiten duen txostenaren bitartez egin ere. Orduan, Bilduk EUEDE

boikotatzen badu eta udalerri bat gobernatzen ari bada, Bilduren alkateak laguntza guztiak nahi eta behar ditu bere proiektua aurrera eramateko. EUDELen eredia ez zaio gustatuko, baina parte hartu beharko du herritarren eskubideak defendatzeko. Gobernatzerakoan beharrak gailentzen dira. Neurri batean beti urratzen dituzu zure printzipio ideologikoak. Esaterako, Gipuzkoan, Etxegarateko bidesariaren eta errauskailuaren auziak ez dituzte erraz ebatzi ahal izango.

Hori nola konpondu daiteke? Nola eman irtenbidea?

J. J. ALVAREZ: Badago irtenbiderik gabeko erabakia, eta da: lau urtez gai hauek hozkailuan sartuta izatea. Baina ezin duzu “ez dut erabakitzen, eredia ez dudalako garbi” erabaki. Hori eutsi ezina da egun. Gipuzkoako zaborrak Bizkaira ari gara eramaten eta “aski da” esan dute. Zaborrak zabortegi txikietan bota dira, baina hauek gainezka daude. Aldundiak errauskailuaren eraikina egiteko daukan kontratua deusezten badu zor milioidun izugarria sortuko da. Badago azterketa bat zaborraren ereduari dagokionean. Herritarren parte-hartzea irizpide teknikoetan oinarritu behar da. Bildu ari da arazoa aztertzen eta baloratzeko. Ziur naiz ezein irtenbiderik ez zaiola gustatuko. Izan ere, erantzunak eman behar dituen aldi honetan, zor milioidunaren ordainezko dirua jarri behar izatea, eta San Markos zabortegia ireki behar izatea –hori baita errauskailuaren ordezkotzat, baita atez ateko zabor sistema jartzea ere– ez dira alternatiba errazak.

F. LETAMENDIA: Zu egiten ari zaren planteamenduetan –Pasaiko kanpoko itsas portuarena barne– argudio ezberdinak badaude, kontrakoak eta aldekoak. Errauskailuaren inguruan badaude bestelako prozedurak, ez hain erasokorrak, utzikinen birziklapena, adibidez. EUDELen kasuak ezker abertzalea instituzioetatik kanpo hainbat urte egon ondoren harrapatu du, baina honek bere proiektua plazaratu zuen, Udalbiltza, maximalista agian, baina nazionala, ez bakarrik EAE-

rako, Euskal Herri osorako baizik. Alegia, faktore askok lurra ukitzera behartuko dute, ados, baina ezker abertzaleak ezin du berau elikatu duen herri mugimendua alde batera utzi, gizarte mugimenduen sarearekin lotuta segitu behar du. Bilakaera ez da argitua, baina ez du gai denetan jarrera bera hartuko. Gauza bat da instituzioetan jardun duten alderdien ohitura eta jarrera, eta beste bat ezker abertzalearen kultura politikoa; herri mugimendu sozialetan finkatuta aurrera egin duena, sistemaren aurkako taldeek hauspotua.

Ezkerreko subiranotasunaren blokea sistema politikoaren baitako mugimendua bilakatuko al da?

F. LETAMENDIA: Zer da sistema politikoa, ordea? Kontzeptu kontserbadorea da guztiz. Egungo joko politikoaren –eta abiapuntuaren– arabera ez dago inolako aukerarik horri aurre egiteko. Beraz: euskal subiranozalea izanda sistemikoa izan al daiteke? Bada, ez. Espainiako sistemaren oinarria Konstituzioa da, orduan, beti altxatuko dira sistemaren aurkako indarrak.

Ezker abertzaleak sistemaren aurkako perspektibatik aritzetik sistemaren baitara izatera pasa behar du. Erantzunak eman beharrean aurkitzen da. Egungo prozesua zirrargarria da, eta gainera, erantzun arrazionalak lortzea eta herri mugimenduekin bide egitea oso fin landu beharreko zeregina da, kontu handiko lana, ez dago maisu-libururik horretarako, kakorratza, ehoziri-lana da, erabakiak hartzea zaila baita.

J. J. ALVAREZ: Ados. Alderdi –edo mugimendu– baten espresio politikorako ildoak gaurkotzeak beti ekartzen ditu printzipioen leialtasunekiko desbideratzeak, baina zein da koherentzia galdu ez duen alderdi politikoa? Altxa dezala eskua. Ezker abertzalearen oinarrietan estigmatizazio moduko bat garatu da azken 30 urte hauetan. Hau da, gizartearen eremu gehienak azpiratu dituzte. Funtsean, bere jendea ez da alderdi bateko kide izan, ideologia moduko bati atxikia baizik. Horrek oinarria zabaltzea ekarri du. Orain,



Juan Jose Alvarez

Bilduk denbora gutxi darama politikan bere ibilbidearen balantzea egiteko, baina begi-bistakoa da, errealismo politikoari lotzeko beharra inposatzen ari zaio

glamour horri atxikia ez segitzeak eta alderdi politiko baten bahetik pasatzeak sorrarazten duten kontrobertsiari aurre egitea ez da erraza. Adibiderako, hor dugu Aralar alderdiaren kasua. Boto multzo bat lortu du, fidela, baina Bildu bezalako aukera izan denean bere boz emaile askok ez du suzedanecoa bozkatu, jatorrizkoa baizik. Funtzio bat bete du, baina desagertuko da. Beste adibide bat EAJk gazteriarengan pizten duen interes eza da: hutsaren hurrengoa. Beraz, gakoa instituzioetan egonkortzea, zabaltzea eta

botereari atxikitzea da –helburua hori baita ezin bestean– eta aldi berean oinarriari muzin egin gabe politika egitea. Hori da politikaren muina eta funtsa. Noski, konplikatu da.

F. LETAMENDIA: Adibidez, Kukutza gaztetxean bizi izan den esperientzia berealdikoa izan da: sistemak baztertutako jende gazteak auzolana eta autogestioa landu ditu erruz. Eta ez dute soilik EAJren alkate batekin topo egin, alkate eta oso sektore –espainol nazionalista– kontserbadore batekin baizik. Tamalez, horrelako arazoan aurrean egoskor jokatzeko botoak ematen dizkio alkate horri. Tamala litzateke halaber, ezker abertzaleak –gobernatzen dutenen eskutik– oraingo agintarien antzeko jarrera hartzea. Tira, ez dut uste horrela izango denik. Aitzitik, Kukutzan ikusi dugunez, sistemaren aurkako ekimenak eta gizartearen aldeko talde autogestionarioak izango dira ezker abertzalearen oinarrian.

J. J. ALVAREZ: Nolanahi ere, Bilduren diskurtsoetan herritarrekiko atxikimendua eta parte hartzeko moduari buruzko jarrera bikoitza dago: “Ez gara aldatuko, baina aldatuko gara”. Ezker abertzalean politikoarekiko dagoen kontrako jarreraz kutsatuak izateko uzkur ari dira. Oraindik gizarteak ez ditu politikari gisa ikusten, termino klasikoan ulertua.

F. LETAMENDIA: Baina ardura instituzionalak hartu dituen gero, ezker abertzaleak bere burua prestatu beharko du barne kritikak jasotzeko. Beti uzkur izan da ezkerretik zetozkion kritikak jasotzeko eta onartzeko, kritika horiek demonizatuak izan ditu orain arte.

Bildu ez da iraganeko ezker abertzalea, halere.

F. LETAMENDIA: Hori da: ezker abertzalea berria da. Prozesu bizia esperimentatzen ari da egoera berrira egokitzeko.


J. J. ALVAREZ: Halaber, esan ohi da, Bildu barruko indar minoritarioak *teloneroak* direla. Halere,

Bilduk legaltasuna baino askoz gehiago ekarri dio ezker abertzaleari. Bateragune auziko sententzian ere idatzita dago. EA da ezker abertzaleari legal izateko aspektu formala eman diona, Bilduren aukera elektoralaren potentzialtasuna zabaldu duena, Alternatibarekin batera. Aldi berean, ezker abertzale tradizionalen badago nahikaria erakusteko ez direla desnaturalizatzen ari, aitzitik, bere esparrua zabaltzen ari direla. Bi prozesu paralelo ematen ari dira: batetik, hauteskundeak emaitza oparoekin sartu dira sisteman, eta bestetik, ezker abertzalea politikari ekiteko beste modu bat lantzen ari da. Ariketa errealista horrek, botere guneen hartzeak –Gipuzkoako aulki nagusia hartzeak, beraiek espero ez zuten arrakastak–, erakutsi die teoria eta praktika aplikatzen ikasi behar dutela, eta hori ez da batere erraza. Bilduk teoria sortu eta landu behar du aldi berean, eta hazi behar du, nerabea baita. Ezker abertzale bezala agertu nahi duen arren, ez da ezker abertzalearen kultura politiko berekoa.

Artean, zein da EAJren subiranotasunaren nahia? Estatuari estatus berria proposatu dio orain gutxi.

F. LETAMENDIA: Egungo EAJk Ibarretxeren EAJren garaian zituen aukerak galdu ditu. Azken foru eta udal hauteskundeetan jaso zituen emaitzek hori adierazten dute. Baina, kontuz, ez du zertan aurrerantzean horrela izan. Hau da, CiUk Katalunian arrakasta lortu berri du eta EAJren eredia baino kontserbadoreagoa da. Ezker abertzaleak goranzko joera garaia bizi du, eta EAJk berriz garai egonkorra biziko du, areago, hainbat lekutan zeukan indarra galduko du. Jokoan dagoena hegemonia da, EAJ indar hegemonikoa izan da oraintsu arte, eta orain hori galtzeko beldur da.

Nire ustez –eta desioz ere–, bi familia abertzaleek elkar errespetatzen badute, bide erosoagoa egingo dute biek. Artean elkarri mokoka ari dira. Ezker abertzaleak proposatu zion hauteskunderako [arazoaren 20koei begira] koalizioa egitea, baina horrek ez du zentzurik, eskaintza



“ **Francisco Letamendia**

Bilduk Kutxa Banken aferan izan duen jarrera aurrerapauso handia da, aurreiritziak gutxitzeko oso baliagarria. Bizitzen ari garen aldaketak ezker abertzale berriaren osaeran sartu behar dira”

elektoralista izan zen, hau eta beste leporatzeko. Haatik, aurrerantzean itun nazional bat egin beharko lukete, Irlandako Sinn Féinek eta Alderdi Sozialdemokrata eta Laboristak (SDLP) 1990 urteetan egin zuten bezala. Urrats handia litzateke eta berebiziko indarra emango lieke nazionalismoaren bi familiei. Hori ere bada konpondu gabeko arazoa, gainditu beharreko irakasgaia.

J. J. ALVAREZ: Artean baina, ETA faktorea dago. ETA erabat amaitzeak jeltzaleen hainbat boron-

date aldaraziko ditu, hauen jokamoldeak lasaituko ditu. Izan ere, bi familia abertzaleen artean ez dago Estatuaren estrategia perbertsoa. EAJk auzi horren aurrean erakutsi du ez duela elektoralismoa egin nahi. Iñigo Urkulluk azken hauteskundeetan Estatuak Bilduri kanpaina egin ziola esan zuen, ez dakit zuzena den hori esatea, baina EAJ sintzeroa izan zen, Bilduren parte-hartzea sostengatu baitzuen. Ezker abertzalearen jarre-
rak larderiatsuak izan dira neurri batean, eta horrek baldintzatzen ditu harreman pertsonalak. Hauek dira azken batez jarduera politikoaren lehen oinarria. Hau da, politikan akordioak are-
rion harremanen arabera gauzatzen hasten dira.

EAJk iparra galdu du neurri batean. EAJren sektore subiranozaleenak izugarritzko kolpea jaso du Gipuzkoan. Izan ere, Bildu Bis-en diskurtsoa egiten baduzu, ez zara Bildu, eta jendeak bozkatzten du jatorrizkoa. Tentuz ibili behar du: EAJ alderdi bizkaitarra bihurtze bidean sar daiteke...

F. LETAMENDIA: ...edo alderdi bilbotarra, okerragoa dena.

J. J. ALVAREZ: Nik, dena den, abertzaleak konfluitzeko modua ikusten dut. EAJk EBBko batzar nagusia eraberritzeko eramango duen ponentzia politikoak Euskadi Europako nazio bezala ikusten du, autogobernu eta subiranozaltasun mailak lortzeko moduak aipatzen ditu, Euskadiren nazio nortasuna Europan bermatu-



Juan Jose Alvarez

EAJren gainean egin eta egiten den estigmatizazioa uxatu behar da. Eta hori neurri batean, ezker abertzalearen markek instituzioetan erakutsi beharko dute egunero herriarentzako politika eginez”



“Ajuria Eneko Itunak ez dit graziarik egiten. Gainera, kontuan hartu behar da, itun hark aprobetxatzeko zeukan guztia PPK akabatu nahi izan duela”.
F. Letamendia

ko duten bideak. Diskurtso horrek etorkizuneko ezker abertzalearen diskurtso ideologikoarekin uztartzeko moduak eskaintzen ditu. Gainditu beharreko ikasgaien artean, EAJren gainean egin eta egiten den estigmatizazioa uxatzea da. Eta hori neurri batean, ezker abertzalearen markek [Bildu edota Amañur] instituzioetan erakutsi behar dute herriarentzako politika eginez. Hori lurraren gainean zapalduz egiten da. Baten batek esango du: Gernikako Estatuaren bidetik? Bada, Estatu horrek ematen dituen aukera eta potentzialtasun guztiak garatuko balira, independenteak izan gabe ere, gauza izugarriak egin litezke. Estatuarekiko harremanetan bilateral-tasun osoa lortu gabe ere, aurrerapausoa litzateke. Adibidez: Kontzertu Ekonomikoaren ahalmena esparru politikora aldatuko bagenu, potentzialtasun ikaragarriak geneuzkake.

Nire ustez, familia jeltzaleak bere burua rol horretan ikusten du, Iñigo Urkulluk barne. Epe labur eta ertainean oraindik ere hauteskundeek baldintatzen dute konponbidea. EAJk ez du argitu bidea, baina ezker abertzaleak ere ez. Eta tamalez, ez oraingoek, ez EAEko hurrengo hauteskundeek, oraindik ere (ETA amaituta ere) ez dute argituko ezker abertzaleak zein aldera joko duen, PSEren aldera edo EAJren aldera.

PPk Madrilgo Gobernua hartzeak baldintzatuko du etorkizuna.

J. J. ALVAREZ: Hori faktore izugarria da. Hirugarren elementua da, faktore gakoa. PPk Madrilen PSE eta hemengo PPren harremanak lardaskatuko ditu. Bi familia abertzaleetan katartsia ematen hasia da. Adibidez, EAJ Gipuzkoan lau udalerriren buru izatera pasa da. Horrek min izugarria egin dio eta zein bideetatik joan erabakitzeke desorientatu du. EAJk lehen aldiz ikusten du orain arte izan duen hegemonia gal dezakeela. Horiek horrela, EAJk eta ezker abertzaleak elkarri egiten dizkieten kritikak apaldu beharko lituzkete. Ezker abertzaleak ezin du honezkero traizio estatutario delakoa aipatu, arau horren arabera politika egiten ari bada. Duela 30 urte baino askoz hobeto gaude, eta hori neurri batean alderdi nazionalistek Madrilen landu dituzten politiken eta harremanen bidez heldu da. Orain, kontua da nazioa nola eraiki, nork bere osagaiak alde batera utzi gabe.

F. LETAMENDIA: Nire ustez bi kulturetan badaude lotuneak oinarritzko akordioa lortzeko.

Zein epetan. Nondik hasi?

F. LETAMENDIA: Borondatea baldin badago epe laburrean. EAEn orain dagoen gobernua ez da berriz emango. Nafarroan, berriz, EAJ eta Zabaltzen batetik, eta Bildu [Amaiur] bestetik ariko dira. Aralar NaBain nahiz Amaiurren egoitek harremanak gozatzeko balio behar luke.

Kakorratza edo ehoziri lana...

J. J. ALVAREZ: Patxi Zabaletari azken hauteskundeetako emaitzek begiak ireki zizkieten, baita bere alabaren egoerak ere, agian. Aldi berean, EAren barneko tirabirak, independenteak NaBain... Ezaugarri batzuek egoera konplikatzen dute, kanpotik edo barrutik, baina ez da erraz ulertzen nola ez den magma komun hori gauzatzen. Nik uste dut errazagoa dela abertzale



Francisco Letamendia

Abertzaletasunean akordio nazionala erdiesteko heldulekuak badaudela uste dut, eta bi joerek landu dituzten bideetatik ikasi daitekeela”

guztien akordioa lortzea EAEn, Nafarroan baino. Helburuetan, ez termino elektoraletan.

EAJk estatus berria planteatzean ez du aipatzen estatu libre asoziatua, Ibarretxe planak planteatu zuena, euskal nazionalismoaren tropetan –ideologikoki esanda– interes estetiko politikoa esnarazi zuena. “Subiranotasuna bai, baina...” batean geratu da EAJ. Gernikako Estatutuaren potentzialtasuna landu behar dugu. EAJk estatus berri bat aipatzen duenean bilateraltasuna nahi du lortu, euskal *demos* bat izan dadila. Nik Gernikako Estatutua ez nuke ukitu ere egingo, izan ere, ziur naiz PPk eta PSOEek gaur egun lehenengo artikularen aurka bozkatzeko luketela; Nafarroak beste lurraldeekin bat egiteko aukera ematen duena. Euskal Herria aipatzen du, hor badago tresna garrantzizkoa, hortik proiektatu daiteke subiranotasunaren bidea. Espainiako Konstituzioa ez da marmolean idatzia eta aldatu daiteke.

Gauza bera pentsatzen duzu zuk, Paco?

F. LETAMENDIA: Nik abertzaletasunean akordio nazionala erdiesteko heldulekuak badaudela esan dut, bi familiek urratu dituzten bideetatik ikasi daitekeela. Biek ekar dezakete beren esperientziatik zerbait baino gehiago. Nahiz eta, egia esan, Ajuria Eneko Itunak ez didan graziairik egiten. Gainera, kontuan hartu behar da, itun hark aprobetxatzeko zeukan guztia PPk akabatu nahi izan duela. ■



DANI BLANCO



Patxi Zabaleta

Aralarreko koordinatzaile nagusia.

Erabakitze eskubidea etorkizunari so

1. Giza eskubide izaera. Erabakitze eskubidea giza eskubidea da. Ez soilik hola aitortua izan delako hainbat nazioarteko adierazpenetan, baizik eta, baita ere, gizakiaren pertsona mailako nortasunari dagokion aukera eta erabakia oinarritzen dituelako. Gizabanako bakoitza pertsona garen heinean, herri eta gizarte bateko kideak gara eta kide-tza horri dagokionez, dugun aukera nortasunari dagokion giza mailako aukera da.

Abertzaleok ahalegin berezia egin beharra daukagu erabakitze eskubideari giza eskubide izaera eta maila daukala azaltzen eta frogatzen. Lehia politiko horretan dago gako ideologikoa abertzaletasunak demokratikoki irabazi ahal dezan. Hiritartasuna gizabanako orori dagokion eta gizarte-kide izatearekin lotzen den bezala, nazionalitatea erabaki eskubidearekin lotzen da eta pertsonaren aukera mailakotzat onartuz gartu beharrekoa da.

Erabaki eskubideak etorkizunarekin eta solidaritatearekin lotu ahal izateko gainera, ezinbes-

tekoa da giza eskubide maila demokratikoa aitortzea erabaki ahalmenari. Hauxe da etorkizun hurbileko lehia politikoan abertzaleoi aurrean jarri zaigun erronka nagusienetako bat. Izan ere, giza eskubide demokratiko horri buruz zergatiko galdera baino askoz ere garrantzitsuagoa da zertarako galdera eta azken horri erantzuteko nahi-taezkoa da eskubide izaera zehaztea.

2. ESKUBIDE HISTORIKOEN GAURKOTZE DEMOKRATIKOA. Euskal aldarrikapenak XIX. eta XX. mendeetan lege zaharra, foru edo eskubide historikoen eskakizunetan oinarrituz egiten ziren; adibidez, foru osoen berreskurapena eta hola-ko esamoldeen bitartez. Zentzu horretako esakerak gelditu dira hainbat kanta, lelo eta ize-netan.

Baina gaurkotasunezko ikuspegi demokrati-ko batetik begiratura, lege zaharren edo eskubi-de historikoen aldarrikapen mota horiek zahar-kituak gelditu dira eta ez dira gaur egun defendagarriak; besteak beste, eskubide politi-koak giza duintasunean oinarrituak daudenez gero, ez direlako oinordetzan hartzen, baizik eta gizartearen eta pertsonaren izatetik sortzen eta, bestalde, eskubide historikoen gaurkotzea



Erabakitze esparruei buruzkoa da abertzaleok daukagun ezadostasun gunea. Lehen ezberdintasuna da batzuok bereizi egiten ditugula erabaki eskubidearen subjektu edo jabea, alde batetik, eta garatu beharreko esparrua, bestetik”

soilik erabaki demokratikoen bitartez gauzatu ahal daitekeelako.

Arlo horretan euskal abertzaletasun guztia-
ren hurbiltze nabarmena gauzatu da azken
hamarkadetan eta horrek bideragarriagoa egiten
du elkarlana. Zentzu horretan aski da gogora-
tzea, frankismoaren ondorengo erreforma
garaietan, EAJ-PNVren aldarrikapenak orain-
dik eskubide historikoen aipamenekin eratzen
zirela eta jokabide horrek eraman zituela kons-
tituzioaren eztabaidaldian autodeterminazioa-
ren aurka botoa emateraino. Azken aldian,
ordea, bestelako jarrera batera bidaiatu dute,
bereiziki “Ibarretxe plana” deitutakoaren ondo-
tik eta hara nola aurtengo konstituzioaren alda-
ketan erabaki eskubidea txertatzeko ekimena
egitera iritsi diren. Ezker abertzaleak betidanik
izan du autodeterminazioaren aldeko jarrera.

Erabakitze esparruei buruzkoa da abertza-
leok daukagun ezadostasun gunea. Lehen ezber-
dintasuna da batzuok bereizi egiten ditugula era-
baki eskubidearen subjektu edo jabea, alde
batetik, eta garatu beharreko esparrua, bestetik;
bereizketa horren argudioak dira Euskal Herria
erakunde politikorik gabekoa izatez gain, indar

koerlazio eta abiagune edo abiadura politiko
ezberdinak aurreikusi beharra dagoela, EAEn,
Nafarroan eta Iparralden. Beste batzuei, ordea,
onartezina egiten zaie –edo gehienbat, egiten
zitzaien– delako esparruen arteko bereizketa
hori, baina arlo horretan ere hurbilketa gauza-
tzen ari da abertzaleon artean eta zalantzarik
gabe, lurraldetasun diakronikoaren ulerpenak
gero eta onarpen handiagoa dauka.

3. ELKARTASUN SOZIALAREN ETA ETORKIZUNA-
REN BERME ETA OINARRIA. Gizarte batek soli-
daritatearen aldeko apustua edo aukera egin
ahal izateko erabakitze gaitasuna behar du.
Gizabanakoak bezalaxe. Solidaritatea herri eta
pertsona askeen dohaina baita.

Aipatutakoa ez da argudio formalista hutsa,
baizik eta eguneroko praktikan, eta eraginkor-
tasunean, ondorioak dauzkana. Bestalde, gaine-
ra, erabakitze eskubidea etorkizunaren eta
ingurumenaren aldeko bermea da; izan ere,
apustu horiek, lurraren defentsa orok bezalaxe,
gizartearen atxikimenduan oinarritzen dira.

Euskal abertzaletasunak etorkizuneko erron-
ka politiko nagusia jokatu du, hain zuzen ere,
solidaritatearekiko bidegile papera egitearen
gakoan. Izan ere, krisialdi sakon honek etorkizu-
naren erroak astindu ditu eta geroaren ateko
aldaba joka datorkigu. Euskal Herriaren eta aber-
tzaletasunaren aldarrikapen nagusiak –autodeter-
minazioa eta lurraldetasuna– ezin dira izan eta
ezin dira utzi bizimoduko eguneroko premia
larrietatik at.

Beti eduki du zentzua, baina,
agian, orain inoiz baino sakonagoa
du nazioaren askapena askapen
sozialarekin elkartzeak. ■



DANI BLANCO



Maribi Ugarteburu

Ezker abertzaleko kidea.

Ezkerreko abertzaletasuna ur handitan

Ezkerreko abertzaletasuna ur handitan ari da, Euskal Herriko zelai politikoan nagusitzen. Bestalde, trantsizio garaitik abertzaletasunaren baitan eragiten ari diren bi ildo nagusien artean aldekatarako garaiak antzematen dira: baitetik, bide eta botere autonomikoan murgilduta aritu den PNV alderdiak badaki bide hori agortu dela; ezker abertzaleak aldiz, bere estrategian funtsezko aldaketa bideratu du Euskal Herriak behar duen garapen politiko eta soziala bururaino eramateko.

Bide autonomikoaren agortzeak bestelako oinarri politiko batzuen beharra ekarri dio abertzaletasunari eta herritarren artean sinesgarritasun osoa lortu duen Ezker Abertzalearen estrategia aldaketak indar metaketarako kultura berria jarri du martxan, urtetan abertzaleen ur-emari nagusia izan denari, PNV alderdiari, erdigunea kenduz. Edo kentzeko bidean jarritz.

Ezkerreko abertzaletasuna ur handitan ari dela diogunean, eragiteko hiru esparru nagusiri buruz ari gara, zeintzuetan euskal herritarren

atxikimendua eta sinesgarritasuna lortzen ari den, ematen duen urrats bakoitzarekin bere imaginarioa indartuz, hots, independentziaren bidea zabalduz.

Lehena, ezbairik gabe, gatazka politiko eta armatuari behin betiko konponbidea emateko esku artean dugun aukera historikoak eraman du ezkerreko abertzaletasuna ur handitara. Alor honetan funtsezkoa izan da aldebakarreko urratsen balioa eta aldebakarreko urrats horiek guztiak itzulezina den estrategia batean kokatzeak, estatuek egiten dutena egiten dutela ere, edo estatuen borondatearen gainetik kokatzeak, hain zuzen: Estatuek borondaterik ez dute, soilik Euskal Herrian indarrak bilduz eta nazioartean presioa eginez sortuko dira epe motz eta ertainean konponbiderako aukerak, alegia, Madrilen aurrean herri gisako konfrontazio demokratikoa indartuz.

Alor honetan, akordio demokratikoa erdiestea da ezkerreko abertzaletasunaren erronka, Euskal Herriaren aitortza eta erabakitze eskubidea Euskal Herriko eragile politikoaren artean elkarriketa-tzea eta adostea, eta honela herri honetan proiektu oro egingarri bilakatzea, tartean independentziarena, ezkerreko abertzaletasuna-



Ezkerreko abertzaletasuna da, galtzaile eta irabazlerik gabeko konponbide demokratikoaren defentsa eginez, bere proiektua epe ertainean lehen lerroan kokatzen ari dena, ezbairik gabe”

ren urtetako imajinarioa izan dena, autonomismoaren porrotaren ostean, herri honen etorkizunari begirako proiektu izarra bilakatzeko bidean jarri, beti ere herritarrek hala nahi badute.

Egun, ezkerreko abertzaletasuna da galtzaile eta irabazlerik gabeko konponbide demokratikoaren defentsa eginez, bere proiektua epe ertainean lehen lerroan kokatzen ari dena, ezbairik gabe. Hainbaten azken orduko presak, gatazkarren amaierako irudian agertzeko urduritasunak eta horri begira puztutako diskurtso eta kontakizunen aurrean, argi luzeak jarrita aritzearen abantaila du ezkerreko abertzaletasunak. Hor ari da irabazten. Zer esanik ez, gainera, espainiar estatuaren krisi ekonomiko eta politikoaren arrakalak gero eta sakonagoak direnean. Bidea errazten dio honek, arrazoiz kargatzen duen hein berean bere herriaren aurrean.

Ezkerreko abertzaletasunaren eragiteko bigarren esparru nagusia aldaketa sozialari dagokio, Euskal Herri berria ezkerretik, justizia sozialaren bidetik eta herritarren borondatean oinarrituta eraikitzeko erakusten ari den gaitasun politikoari hain zuzen. Azken hauteskunde ondotik, arlo instituzionalean sakoneko berritzea ezagutu dugu, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako eta herrietako egitura instituzionaletako ordezkartzan indar nagusia bilakatu delarik Bilduren koalizioaren bitartez.

Urtetan oposizioan edo kontrara eta ezezko politikan murgilduta egotetik, gestioaren ardura potoloa eta konfiantza osoa eskaini dio herri honek ezkerreko abertzaletasunari. Ez du eremu xamurra izango honakoa, hainbat urtetan hegonia instituzionala izan dutenek, batik bat PNV alderdiak, egundoko zorraz eragin dituztelako euren proiektu erraldoietan instituzioak kateatu eta gero. Proiektu erraldoien aroa amaitu da, beraz, eta instituzioak aldaketa sozialaren zerbitzura jartzeko garai berriari baiezkoa eman dio nagusigoz herri honek eta, beraz, horretan asmatzea izango du, epe motz eta ertainean, erronka ezkerreko abertzaletasunak, gatazkaren konponbideaz harago, gizarte-konponbidean asmatzea, instituzioak horrek mesedetara jarri.

Hirugarren erronka nagusia aurreko bietan asmatzeko antolaketan datza, hots, garai berri honetan herri gisa ditugun beharrei egokien erantzungo dion antolaketari heltzea epe labur eta ertainean. Ezkerreko abertzaletasunak hainbat urrats egin ditu dagoeneko: Lortu Arte akordioa, Euskal Herria Ezkerretik akordioa, Bildu koalizioa, Amaier, espainiar hauteskundeetara lehiatuko dena... hauek guztiak tresnak dira, tresna indartsuak oso, indar metaketaren balioa egoeraren aldaketaren zerbitzura jarri eta sakoneko aldaketa horiek, bai konponbidean bai eredu sozialean, posible dela erakusten dutenak; izan ere, nork esan behar zuen duela urtebete egungo egoeran egongo ginenik!

Bukatzeko, ezkerreko abertzaletasunak paradigma errotik aldatu du: duela urte gutxi batzuk sinesgarritasunean eta eraginkortasunean herren baino herrenago egotetik Euskal Herriko aldaketa politiko eta sozialaren motorra izatera iritsi baita. Asmatu egin du ibilbide orrian, baina orain luzerako bidean asmatzea dagokio, independentziaren bidean herritarren atxikimendua bereganatu eta estatu espainiar zein frantziarraren aurrean gero eta sendoago agertzea, berandu baino lehen munduko beste estatu libre bat izateko. ■



DANI BLANCO



Rafa Larreina

EAKo Batzorde Eragilearen kidea.

Iragan heterodoxoa eta etorkizun itxaropentsua

Gure Herriaren bizitzan une historikoak bizitzen ari garela esan dezakegu, eta oraingoan ez da topikoa. Lerro hauek idatzi eta irakurri bitartean, gero eta bizkorrago etapa historiko berri batera garamatzaten adierazpenak eta jazoerak gertatzen ari dira. Etapa berrian “indarkeriaren estrategia-errepresioa” dikotomiak Euskal Herriaren bilakaera politiko, kultural, sozial eta ekonomikoan protagonista izateari utzi eta herritarren babesa duten proiektu politikoaren arteko konfrontazio demokratikoari bide emango dio.

Panorama berri honetan, mugimendu politikoak nola birkokatuko diren eta, zehazki, kontzientzia eta identitate nazionalaren ikuspegitik euskal gizartea norantz lerratuko den galdetzea logikoa da. Ikuspegi abertzaletik, etapa berriaren gakoa euskal historia eta egungo errealitatea aztertzeo ahalmena izango da, baita topikoak hausteko, indarrak biltzeko eta bide berriek ekiteko ahalmena ere.

Euskal gizartearen erabakitzeko eskubideak dituen arazoak eta oztopoak Madrilen eta Pari-

sen kokatu izan dira, eremu politiko horiek gure gaitz eta frustrazio politiko guztien errudun bakarrak bailiran. Argudio ildo horretan, gatazka armatuak eta indarkeriazko konfrontazioak –denboran gehiago atzera egin gabe, Gerra Karlistetatik hasi eta 36ko gerrara edo ETaren indarkeriazko estrategiara– Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko borroka gisa planteatu dira. Egia da gerra eta gatazka horietan guztietan beste eremu geografikoekiko osagai bereizgarria zegoela –egun burujabetasun nazionalen gatazka deritzoguna–, baina egia da, halaber, gerra eta gatazka horiek euskal herritarren arteko gatazka zibilak izan direla: tropa karlistetan nahiz liberaletan borrokatzen zirenak euskal herritarrak ziren; EAJ eta ANVren gudari batailoietako kideak, batailo sozialista, komunista eta anarkistekoak euskal herritarrak ziren, baita kolpe faxista bultzatu zuten erreketetakoak ere; etakideak euskal herritarrak ziren, eta atentatuak, indarkeria eta estortsioa jasandako asko ere bai.

Horregatik uste dut sakoneko arazo politikoaren konponbidearen oztopo nagusia ez dela Madrilen edo Parisen egon, euskal gizartean bertan baizik, euskal gizartearen barne zatiketa sakonean. Euskal eta espainiar identitateen arteko zatiketaz gain, –bereziki azken urteotan–



EAJ epe laburrean boterea kontrolatzeko estrategia baztertu eta burujabetasunaren aldeko estrategia integratzailearekin bat egin dezan konbentzitu beharko dugu”

abertzaletasun politiko eta soziologikoan egon da zatiketa, eta horrek gatazka gainditzeko motorra izatea eragotzi dio.

Zatiketa egoera horretan eroso mugitu izan da beti Estatua edo, hobe esanda, “stablishment”a, gehienez ere –Salinas printzearen printzipioari jarraiki– guztiak berdin jarrai zezan aldaketa txikiak onartu dituen boterea: autonomiei atea zabaldu zien, “kafea denontzat” printzipioa ezarrita, Katalunia, Euskal Herria eta Galiziaren nahiak giltzapetu zituen, eta autogobernuari eta autodeterminazioari ateak itxi zizkien. Gainera, botereak kontrolatutako komunikabideek barne zatiketa akuilatu dute, bi komunitateen mamua eta gatazka zibilaren arriskua xaxatuz.

Iraganeko mugak gainditzeko eta estrategia politiko komunak eskatzen dituen baldintzak jartzeko Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak azken urteotan egin duten ahaleginak eta lanak sakoneko gatazka politikoa konpontzeko eta abertzaletasun politikoa euskal gizartean zabaltzeko bidea ireki dute.

Bide soilik politikoak batera jorratzeko ahalegin honek zabaltzen jarraitu du, beste indar poli-

tiko batzuk txertatu ditu, hala nola Alternatiba eta Aralar, eta dagoeneko ahalmen ikaragarria du orain arteko zatiketa dinamikak goitik behera aldatzeko. Ahalmen hori errealitate bihurtuko da, euskal gizartearen barne zatiketaren eskemak hausteko gai bagara.

Eremu abertzalean hori lortzeko, EAJ epe laburrean boterea kontrolatzeko estrategia baztertu eta burujabetasunaren aldeko estrategia integratzailearekin bat egin dezan konbentzitu beharko dugu; eta, eremu espainolistan ere, beren bidezko identitate nazionala gorabehera –beti errespetatuko dena–, herritarren beharrei eta bidezko helburuei erantzungo dien euskal gizarte bidezkoago eta solidarioagoa eraikitzeko ahalegina egiteko konbentzitu beharko ditugu, euskal gizartearen ahotsa, hitza eta erabakia errespetatzeko konpromisoa hartuta –abertzaleek egiten dugun bezala–.

Europar Euskal Herriaren independentzia posible da, euskal gizartean bertan orain arte izan diren zatiketa politiko eta sozialaren ohiko eskemak apurtzen baditugu. Oraingoz, eremu abertzalean batasuna bilatzen hasi gara, eta abertzaleak ez diren esparru aurrerakoiekin ere, hala nola Alternatibarekin, ekintza bateratua abiarazi dugu. Elkarrekin aurrera egitea, herria eta gizartea batera eraikitzea posible dela erakutsi dugu. Bestelako Euskal Herria eraikitzeko motorra, garai politiko zein sozial berria gauzatzeko itzaropena elikatzen duen motorra martxan da. ■



DANI BLANCO



Markel Olano

EAJko kidea.

Abertzaletasunaren aukerak

Idatzi honen bidez galdera honi erantzun nahi nioke: Zeintzuk dira oinarritzko baldintzak eta beharrak abertzaletasunaren egitasmoak jauzi kualitatibo garrantzitsua eman dezan epe labur edo ertainera?

Bi dira nire aburuz: abertzaleen oinarritzko estrategia bateratua eta herri-atxikimendua.

Bistan da epe laburrera ETAk armak behin betirako uzteko aukera handiak daudela. Honekin, abertzaletasunaren tradizio politiko garrantzitsu batek, ezker abertzaleak, bere osotasunean bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko apustua egingo luke. Honek oinarritzko estrategia bateratu bati bide ematen dio, azken hamarkada luzeetan gertatu ez den bezala (Lizarra-Garaziko garaietako salbuespen laburra aipatuta).

ETAk bortizkeria alde batera uzteak bakearen abiapuntu ezartzen duelarik, abertzaleen arteko elkarlanaren oztopo nagusia ere desagertzen da, abertzaletasunaren errebindikazioei egiten zitzaien xantaia emozionala ere (bortizkeria guztiok baliatzen genuela aditzera ematen zuena) desagertu egingo delarik.

Bigarren baldintza, herri-atxikimendua. Hau oso zaila da gaur egun, konpromiso politikoa oso urrun baitago euskal herritarren pentsamendutik. Mendebaldeko gizarte guztietan bezalaxe, kontsumismoa nagusitu egin da gurean eta, Baumanek esaten duen modura, gizarte “likidoaren” arlo guztietara hedatu da: arlo soziala, afektiboa eta baita politikoa ere. Gure gizartean arlo politikoa aldikako kontsumo-gai bilakatu da eta, konpromiso iraunkorra ekiditeko, klase politikoaren estigmatizazioa erraztu egin da “denak berdinak dira”.

Nola lortu gizartearen inplikazioa eta mobilizazioa? Nire ustez giltzarria gazteen kultura politikoaren eraldaketan datza. Gazte gehienek politikarekiko ezartzen duten distantzia indiferentea gizarte osoaren heldugabetasunaren ondorio besterik ez da. Horri aurre egin behar diogu era sistematikoan.

Baina arduradun politikook ere geure kultura politikoa gaingitu egin behar dugu, gizarte partehartze eredu berri bat landuz eta demokrazia ordezkatzailerik eraldatuz, baina kultura asanbleario antzuak alde batera utziaz.

Hortik aurrera, zenbait giltzarri ezinbesteko ikusten ditut aipatu dudak jauzi kualitatibo horretarako:



ETAk bortizkeria alde batera uzteak bakearen abiapuntu ezartzen duelarik, abertzaleen arteko elkarlanaren oztopo nagusia ere desagertzen da, abertzaletasunaren errebindikazioei egiten zitzaien xantaia emozionala ere (bortizkeria guztiok baliatzen genuela aditzera ematen zuena) desagertu egingo delarik”

EREDU PROPIOA. Hasteko, eredu sozio-ekonomiko propioa lantzen jarraitu behar dugu. Ez dugu ahaztu behar krisi ekonomiko latzari gure inguruko herrialdeek baino hobeto eutsi badiogu, izan dela industriaren aldeko apustua (ezagutza, prestakuntza, lehiakortasuna, nazioarteratzea) hobetsi dugulako, espekulazioa alde batera utzita. Euskal Herrian eredu propioaren alde egin ahal izan eta nahi izan duten eskualdeek giza-garapen eta ongizate maila altuak lortu dituzte.

Hori izan da gure enpresetan nagusitu den kultura eta horixe bera instituzio propioen kudeaketaren ildo nagusia. Ez dugu ahanztzi behar, testuinguru honetan, lan harremanetarako sistema propio batek duen garrantzia.

EREDU EUOPARRA. Europaren eraikuntzan parte hartzen jarraitu behar dugu, ekonomikoki eta sozialki europar ereduaren sinisten dugulako. Eredu honetan gizarte ongizatea mantentzen da, berau finantzatzeko ekonomia lehiakorrari eutsiz.

Testuinguru honetan norbaitek “sistemaren” kontrako errelatoa erabiltzen baldin badu abertzaletasunaren baitako elkarlana baztertzeko, garai politiko berrien kontra nabarmen egiten du nire ustez.

AUTOGOBERNUA. Bigarren giltzarria autogobernua dugu: orain arte lortutako autogobernu

mailari uko egin gabe, hortik aurrera eraiki behar dugu etorkizuna.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA. Ibarretxe lehen-dakariak Madrilgo Kongresuan aurkeztu zuen Estatutu Politiko berriaren proposamenak mugarrria ipini zuen, eta muinean duena horixe da: erabakitzeko eskubidearen instituzionalizazioa.

Bi printzipio nagusi uztartu behar dira:

1) Gizarte moderno guztiak bezala, gizarte anitza gara. Beraz, aniztasun horrek elkarbizitza sortu behar du, eta ez enfrentamendua. Elkarbizitza bermatuko duten prozedurak onartu behar dira beraz.

2) Printzipio demokratiko oinarritzkoenak gehiengoaren borondatearen errespetua bermatzen du. Beraz borondate horrek balio normatiboa behar du.

NAZIOARTEKO ERREKONozIMENDUA. Oinarrian errekonozimendu arazoa daukagu. Estatu espainiar eta frantziarrak gure izaera nazionala errekonozitu behar dute, baina baita Europa eta mundu osoko gainontzeko herriek ere. Horretarako lan planifikatu bat prestatu behar dugu.

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA. Jauzi kualitatibo hori ez da sinesgarria izango, euskararen eta euskal kulturaren garapenak aurrerapauso sendo bat egiten ez badute. Laburki esanda, besteak beste, bi urrats ikusten ditut ezinbesteko: bata, edukiak sortzerakoan ikuspegi komertzialaren pisu handiagoa eta bestea, euskarazko medioak ideologikoki partzialak izan ote daitezkeenaren aitzakia merkea alboratu eta tradizio abertzale guztiek parte hartzea edukien sorreran. Bai kulturaren eta baita hedabideen ikuspegitik ere.

Erronka guzti hauek ez al dira aski euskal herritarren eta, batez ere, gazteen ilusioa eta konpromisoa berpizteko? Nik baietz uste dut. ■





Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**